

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1332

34/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratadun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duen Dekretua.

Uztailak 4ko 186/2017 Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratadun langileen lanpostuen zerrenda, zeina 2017ko uztailaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren argitaratu baitzen (131. zenbakia). Dekretu hori zuzendu egin zen, eta lanpostuen zerrenda osatzen duen eranskina, akatsak behin zuzenduta, berriro argitaratu zen 2017ko abuztuaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (164. zenbakia).

Administrazioko barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira lanpostuen zerrendak. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko ebazpena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldi-aldean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluan agindutakoa betetzeko xedez.

Horren ondorioz, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 6an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Uztailaren 4ko 186/2017 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratadun langileen lanpostuen zerrendan egindako aldaketak onartzea, zeinak dekretu honen eranskinean jasota baitaude.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENNGOA.— Errekurtsoak.

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekursoa aurkez dako Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bihileko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.— Indarrean jartzea.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 6an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2018ko martxoaren 12a, astelehena

ERANSKINA, MARTXOAREN 6KO 34/2018 DEKRETUAREN. LANPOSTUEN ZERRENDA

ANEXO AL DECRETO 34/2018, DE 6 DE MARZO. RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

Saila/Erakunde autonoma: HEZKUNTZA
 Departamento/Organismo Autónomo: EDUCACIÓN

Kudeaketa atala: ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA
 Centro Gestor: DELEGACIÓN TERRITORIAL DE ÁLAVA

Lanpostuen zerrendaren testua, aldatu beharrekoa
Texto a modificar de la Relación de Puestos de Trabajo:

<u>LANPOSTUA PUESTO</u>	<u>DOTAZIOA DOTACIÓN</u>	<u>TITULAZIOA TITULACIÓN</u>	<u>HE PL</u>	<u>DERRIGORREZK. DATA FECHA PRECEPTIVIDAD</u>	<u>EZA CON</u>	<u>DESTINO DESTINO</u>	<u>OHARRAK OBSERVACIONES</u>
3470 LANPOSTUAREN IZENA <u>DENOMINACIÓN DEL PUESTO</u> HEZKUNTZA LAGUNTEKO ESPEZIALISTA ESPECIALISTA DE APoyo EDUCATIVO	46	422400 422200	1	--	--	807	BERRITZEGUNE A01
3470 HEZKUNTZA LAGUNTEKO ESPEZIALISTA ESPECIALISTA DE APoyo EDUCATIVO	47	422400 422200	1	--	--	807	BERRITZEGUNE A01
3470 HEZKUNTZA LAGUNTEKO ESPEZIALISTA ESPECIALISTA DE APoyo EDUCATIVO	105	422400 422200	HLEA	2017-09-01	807	BERRITZEGUNE A02	
3470 HEZKUNTZA LAGUNTEKO ESPEZIALISTA ESPECIALISTA DE APoyo EDUCATIVO	106	422400 422200	HLEA	2017-09-01	807	BERRITZEGUNE A02	
<i>Lanpostuen zerrendaren testua, aldatua <i>Texto modificado de la Relación de Puestos de Trabajo:</i></i>							
<u>LANPOSTUA PUESTO</u>	<u>DOTAZIOA DOTACIÓN</u>	<u>TITULAZIOA TITULACIÓN</u>	<u>HE PL</u>	<u>DERRIGORREZK. DATA FECHA PRECEPTIVIDAD</u>	<u>EZA CON</u>	<u>DESTINO DESTINO</u>	<u>OHARRAK OBSERVACIONES</u>
3470 LANPOSTUAREN IZENA <u>DENOMINACIÓN DEL PUESTO</u> HEZKUNTZA LAGUNTEKO ESPEZIALISTA ESPECIALISTA DE APoyo EDUCATIVO	46	422400 422200	1	--	--	807	BERRITZEGUNE A02
3470 HEZKUNTZA LAGUNTEKO ESPEZIALISTA ESPECIALISTA DE APoyo EDUCATIVO	47	422400 422200	1	--	--	807	BERRITZEGUNE A02
3470 HEZKUNTZA LAGUNTEKO ESPEZIALISTA ESPECIALISTA DE APoyo EDUCATIVO	105	422400 422200	1	--	--	807	BERRITZEGUNE A02
3470 HEZKUNTZA LAGUNTEKO ESPEZIALISTA ESPECIALISTA DE APoyo EDUCATIVO	106	422400 422200	1	--	--	807	BERRITZEGUNE A02